

Joxe Azurmendi

Idazlea



Analisi zirriborroa hitzaurre baterako

'Egunkaria'-ren itxieraren inguruan

Iñaki Uriari, omenez

1. Perspektiba: Madril

Egin beharra baitago zerbait mataza deabruzko horren aurka! Alferrik da: ETA hausteko, lehenbizi hautsi beharra dago haren inguru soziala. Bestela deusetako ez da dena izango, hidra horren mila buruak beti berriro erneko dira. ETAREN garroak alderik alde sartu/zabalduek daude inguru sozial eta kulturalean. Hor eta hortik bizi da. Hori da ETAREN bizi-indarra. Horrek ematen dio arnasa eta legitimazioa terrorismoari. ETA hor ezkututzen da, elkarte kulturaletan, gaztetxeetan, mugimendu sozialetan. Hori da gazteak ideal noble engainagarriekin limurtzen dituen sirenen kanta, terrorista berrien mintegia. Gero inor ez ei da ETAKoa. Inork ezer ez daki ETAZ. ETA ez da existitzen. Baina errealitatea da, euskal gizartean ETA toki guztietan infiltratua dagoela. Enpreetan, bankuetan, sindikatuetan, elizan bertan. Batez ere ikastoletan, eta kulturako erakundeetan ETA erraz infiltratzen da, asko eta asko dira ETAREN lekaioak. Zein linea jarraitu beraiek markatzen dute taldean eta azkenik, batzuk ohartuki eta besteak oharkabe, denak ETAREN jokoa egiten ari dira. Jokamoldea beti berdina da: pare batek kultur erakunde bat sortzen du ETAREN esanera, lagun mordo bat inguruan biltzen du, edozein proiektu asmatzen dute eta Eusko Jaurlaritzak subentzionatzen du hori. Horrela ETAK subentzio publikoak jasotzen ditu. Aldi berean diru beltza garbitzeko sarea muntatzen du, lanbide egoki batean kokatzen ditu bere ekintzaile legalak, militante berriak errekutatzen ditu. Zirkulu deabruzko bat da. Amaitu beharra dago hori errotik eta betiko.

Gezur beltza da, gu euskararen etsaiak garel. Espainia pluralaren altxor historikoa da euskara, euskara bereziki hain zuzen, beste hizkera iberiko denak galdu direnean, eta inork baino gehiago maite dugu guk. Iraganaren gaudetan galtzen den Protoespainiaren erlikia santua, arima espainol prehistorikoaren lekuko bakarra gaur, his-

torikoki gaztelaniaren ama gainera, gaur kultura unibertsalerako denok daukagun eta behar dugun hizkuntza, espainola euskararen lurretan eta euskaldunen ahotan jaio baita behiala. Euskararen bidez Espainiaren arima bere iragan ilunarekin lotzen da, Espainiak hor oraindik bizirik deskubritzen ditu bere erro denboraurrekoak. Horregatik euskara Espainia osoaren ondare sakratua da. Horregatixe, beti garbi eta ukiezin gorde dadila, nahi dugu, eta halaxe ahaleginduko gara baliabide guztiekin erruki gabe. Ezin dugu toleratu, politiza dadila, nazionalistak etoiki azken urte guztiotan egiten ari diren bezala, beren helburu politikoetarako erabiliz, interes partikularisten tresna bihurturik, separatismoaren arma, itxurabako antiespainolismo baten bandera politiko, bortxakeriaren aliatu mozorropeko. Bukatu da joko hori. Euskarak berriro, gaztelaniaren ondoan, garbi eta bakean bizi behar du, oraindik bizi den tokietan, guztion ondare errespetatu, ez gaztelaniaren aurka, hori da gure guztion hizkuntza nazionala, Konstituzioak dioen legez, guztion kulturako hizkuntza, mundu osoan zabaldua. Ez dugu onartuko euskararen manipulazio politikorik gehiago. Eta ez dadila esan, behar diren neurriak hartzen badira, euskara pertsegitzen dugula, gezurra da hori. Euskara maite dugulakoxe eta euskararen beraren onerako nahi dugu, eranskin politiko eta bortxakeriazko orotatik garbi gorde dadila, guztion altxor bezala begiraundua izan dadila, ezin dugulako ikusi guztion altxorra nazionalisten arma jaurtigarri bilakatua.

Gertatzen dena da, ETAk eta nazionalistek euskararen Espainiaren aurka jarduteko ereti ezin hobe bat aurkitu dutela. Bost axola haiei euskara. Euskararen, txapelean eta txistuan edo haurrak izenik bitxienez bataiatzeko moda barregarrian bezala, beste espainolengandik diferentziatzeko aukera bat bilatzen dute. Athleticek beste klub guztietatik bestelakoa izan behar du. Guipúzcoak Gipuzkoa izan behar du orain eta Vizcayak Bizkaia. Absurdua da. Denean eta edozertan, beti diferenteak izan behar dute. Nazionalisten tik neurotikoa da. Azken finean espainol-tasanari uko egin nahi dute. Haurrak Espainiaren gorrotoan hazten dituzte. Ikastoletan, Jaurlaritzaren subentzioekin ETAren argitaletxeek argitaraturiko liburu arrazistak dira testu obligatuak. Ez diete haurrei Espainiako historiari irakasten, eta bai Euskal Herriko historia mitiko bat, independentzi ametsezkoa, antiespainola. Sekula existitu ez den Euskal Herriaren geografia eta lurkarta fikziozkoak ikasgarritan dizkiete, eldarnio separatista hutsak. Historiako Errege Akademiak berak protestatu behar izan du. Zertarako, baina? Autonomiaren aitzakiaz, nahi dutena egiten dute. Nahi duten informazio pozoitsua hedatzen duten bezala egunoro, euskararen aitzakiarekin, beren irati eta telebista autonomikoetan eta euskarazko egunkari eta aldizkarietan, diru publikoagaz ordainduri-ko proselitismo separatista lotsagabea eginez. Eta euskararen aitzakiarekin, gogoko ez dituzten irakasleak edo euskara ez dakiten haurrak, marjinez dituzten bezala eskoletan, administrazioan beren alderdiko burkideak sartu, Estatuaren zerbitzuetako kandidatuak xantaiatu. Inork abusu guztiok jendaurrean salatzen baditu, eta Estatuak esku hartzeko keinurik txikiena egiten badu ordena pixka bat jartze aldera, segituan altxatzen da nazionalisten garrasia zeruko izarretaraino euskararen jazarpenaren betidaniko ipuinarekin. Gezurra. Ez dago euskararen jazarpenik. Erregeak esan bezala, Espainian ez da inoiz jazarri ez euskara, ez beste hizkuntzarik. Nazionalismoak itsu-



tu ez dituen euskal intelektual objektiboek berek hala aitortzen dute. Konstituzioak euskara babesten du. Gertatzen dena da, separatismoaren bandera bezala erabiltzen dela, euskaragaz espainola ito nahi dela, eta hori ezin da eraman.

Espainol guztion hizkuntza gaztelania da, denok jakin behar duguna. Ez Konstituzioak hala dioelako bakarrik. Denon hizkuntza hori da, denok dakigun eta denok ulertzen duguna, eta gure harremanetan denok behar duguna, hizkuntzak elkar ulertzeko baitira. Guztion artean komunikazioa problemarik gabe gaztelaniak bakarrik ziurtatzen digu. Antzinate antzineneko oroigarri legez, euskara bitxi preziatu bat da, inork baino gehiago guk preziatzen dugu. Ostera, hizkuntza bezala beharrezkoa, Euskal Herrian bertan ere inon ez da. Euskara antzinako hizkuntza bat da, antzinako estrokturekin, antzinako munduari lotua gelditu da. Horregatik, egia da, aspaldian atzera doala, edozelan ere arrazoi naturalengatik doa atzera, ez gezurrezko jazarpenen bategatik. Unamunok bezala Menendez Pidalek oso garbi esan zuten hori, eta hala diote oraintxe bertan euskal intelektual ausartenek, nazionalismoak itsutu ez dituenek. Euskara hizkuntza primitibo paregabe bat da, hor dago bere interesa, antzinatearen dokumentu bakana. Ez du balio mundu modernoan. Haren balioa bere etxekotasunean dago, bere lokaltasun koloretuan, diferentzia dialektaletan ia etxetik etxera, bere ahozketasun arkaikoan. Ez da hizkuntza literarioa. Edo hobeki, poesiakoa eta fabulaziokoa menturaz bada, ez zientziakoa eta komertziokoa. Bilbo euskaraz mintzatzen, imajinazio absurdua da. Berez, egiazko euskara euskalkitan diferentziatua bizi den hori da, euskalkiek dute antzinatearen egiazko balioa eta interesa. Orain, Estatuak eman dien erraztasuna eta laguntza aprobetxatuz hain zuzen, nazionalistek euskara berri bat asmatu dute, batua, eta, espainolaren lekuan, inork mintzatzen ez duen hizkuntza artifizial hori inposatu nahi dute bortxaz. Toki guztietan euskara inposatu nahi da orain. Absurdu bat eta utopismo gaizto bat, kontu egiten bada, euskara inoiz ez dela kulturako hizkuntza izan, espainola bezala.

Mundura, kultura unibertsalera espainolak zabaltzen gaitu. Euskal Herriko idazle handienek berek —Unamunok, Barojak—, munduarentzat idatzi dutenek, espainolez idatzi dute beti, espainolez idatzen dute gaur ere. Horrela denek irakurtzen dituzte. Euskaldunak izan dira literatura espainoleko autore handienetako batzuk, euskaldunak dira oraintxe ere. Inork ez ditu behartu, ez jazarri. Zentzu onak berenaz eraman ditu hala jokatzera. Logikoa da. Euskara sutondorako da, hizkuntza intimoa, ez da hizkuntza literarioa. Idazle utopistaren batek gaur euskaraz bakarrik idatzi nahi badu, egin beza, ongi da, bere lagunak irakurriko dute. Euskaldunen kulturako hizkuntza naturala espainola izan da beti. Horregatik da, euskara atzeraka badoa. Ez du espainolak bakarrik atzerarazten, Frantzian are gehiago, eta latinaren aurrean berdin jazo zen, euskara ez zelako kulturakoa, eta latina bai. Historiako legea da hori: balio duena, zabaldu egiten da; balio ez duenak, galdu egin behar du. Euskarari espainolarekin eta frantsesarekin jazo zaiona, funtsean ez da besterik, latinarekin hasitako ordeztapen prozesu naturala jarraitzea baino. Arrazoizkoa da horrela izatea. Horregatik, euskara orain artifizialki kultur hizkuntza bihurtu

gura izateak, ez du zentzu handirik. Beti ere hizkuntza txiki bat izango da, inoiz ez du munduan inork haren beharrik edukiko, euskaldun orok espainola badaki eta. Dena den, horixe baldin bada, derrigor nahi dutena, egin bezate. Egin bezate alegia beraiek. Baina inposatu gabe gura ez dutenei. Baztertu eta zapaldu gabe euskara ez dakitenak. Euskara gizartearen zatikatzeko erabili barik, aspaldion egiten ari diren moduan.

Izan ere, aurreko sisteman gehiegikeria batzuk egin omen zirela estakurutzat emanez, orain gabilta egiazko gehiegikerietan itzulipurdika ibili, ez zer eta ez nora, tentua galduta dena goitik behera bestelakoa nahiz, kaos hutsean, ergelki zapuzturik sistema hark zinez bazituen ezbaigabeko balio handiak. Dena ez zegoen gaizki, gutxiagorik ere. Handik zer ikasi asko genuke oraindik. Historian zehar hainbat eginahalez belaunez belaun jasoa, axolagabeki eraisten ari gara gu denbora gutxian, inoren hobari gabe. Gure konplexuengatik aurreko sistemaren kritiken aurrean, Estatuaren dezentralizatu genuen, autonomietan banatu, nolana hiko kontzesioak egin genizkien nazionalistei, kontentatuko genituen ustean. Alderantziz, geroz gehiago eskatzen dute, sekula ez dira asetzen. Honez gero eskualde bakoitzak nahi duena egiten du, bere ziliborrari soilik begira. Ez dago ja Espainiarik.

Betiko gure makur historikoa da hori. Erdiuharteko tribuetan Estrabon-ek berak zuen ja nabarmendu haien lokalismoa, anarkismoa, beren artean elkartu ezina, eta indibidualismo karakteristiko horri «aje iberikoa» zeritzon jada orduan arrazoi guztiz. Espainolak esku gogorrez behartu beharra dago elkartasunera ideal altuen konkistan. Bestela anarkian galtzen gara, orain gertatzen ari den bezala. Aurreratu eta goratu nahi badugu eta nazio moderno bat izan, denok bat-batu beharra daukagu, etorkizuneko desafio handiei bat eginik aurre egiteko Europan. Oraingo martxan laster burua hondatuko ez badugu, amilbideari balazta jarri beharra dago azkar. Errekak ja gainezka egin du, urak atzera ekarri beharra dago uberakara. Utikan zatiketa eta kaos guzti hau! Burugabekeria oskurantista da eskualde bakoitzean hizkuntza txiki diferente bat ofizialdu nahi izatea. Estatuak ezin du eskutik utzi noraezko bere eginbidea dena, gaztelaniaren defentsa lurralde osoan, horrela bakarrik ziurtatzen zaielako hiritar guztiei batasuna eta unibertsaltasuna munduari begira. Ezin gara probintzia bakoitzean diferenteak izan. Ezin gara nazionalistei beti amore ematen ibili, Espainia osoro desegin diezaguten arte. Aski da kontzesioez! Estatuak hiritar guztien berdintasuna bermatu behar du. Diferentziei zor zaien begirune guztiaz, baina, espainol guztiok berriro batasun sano batean ibiltzeko, moztu beharra dago behingoan azken urteotako garapide okerrak eta gehiegikeriak, partikularismoak, utopia separatistak. Denok egin behar dugu zerbait ezinbesteko ordenari eta guztion elkarbizitzari eusteko. Erabateko kaosera goaz bestela.

Horixe da hain zuzen, ETak nahi duena: gizartearen terrorizatu eta kaosa sortu, ordena konstituzional guztia hantzez gora jartzeko. ETA asesino banda kriminal hutsa da, inolako justifikazio politikorik gabe, hori ebidentea da edozeinentzat. Tranpa batean harrapatua dauka euskal gizartearen. Bere asmo kriminalak helburu politikoekin estal-



tzen ditu. Gazteen mugimendu sozial eta kulturaletan erraz infiltratzen da, demokratikoa esaten den euskal nazionalismo guztiak baititu, ETak deklaratzeko dituen helburu berberak eta ideologia arrazista separatista berbera. Horrela ideologia nazionalistak Espainiaren gorrotoa pizten du, bere biktimismo etengabearekin bortxakeriari legitimazioa ematen dio, ETari beti jokoa egiten dio modu batera edo bestera, borondaterik onenarekin agian jende askok, akordatu gabe nola ETaren sareetan erorita dagoen, haren txotxongilo bilakatua. ETarekin akabatzea Guardia Zibil eta Poliziaren egitekoa da. Ordea denon egitekoa da, bakoitzak bere tokitik ahal duen guztia eginez, amilbide horri buru egitea. Guztion zeregin horretan, epaileon egitekoa baitezpadakoena da baitezpadakoetan, Espainiak, behar duen batasuna eta sendotasuna, berraurki dezan, datozen garaietan, Europa berrian eta munduan dituen eginkizun handietarako. Egin beharra dago zerbait albait lehen, meditatzen zuen, gurutze santuaren aurrean belauniko, epaile espainolak.

2. Perspektiba: enpresako kudeatzaile atxilotua

Batetik, judikaturan karrera egiteko, gaurko Espainian, botereari arrimatu eta makurtu beharra dago, nahikoa ikusi da hori urteotan. Bestetik, «terrorismoaren» inguruan halako iritzi publiko larritu bat sortu da edonon, Espainian bezala munduan, ezin esan baitaiteke, oportunistoa besterik ez dela, zenbait epaile prest badago, Barne Ministroak edo Guardia Zibilak nahi duen edozer eta gehiago egiteko. Nahas-mahas doa dena. Bai bata eta bai bestea gozotan eduki gabe ezin dira ulertu, nik uste, azkenaldian ikusi ditugun gertakari judizial batzuk.

Azkenean kontua da, euskal kulturako enpresak eta enpresaburuak, zirkunstantzia hauetan, «atipikoak» garelako Estatuan, ahalik neutralena esateko. Edo atipikoa, gurekin daukaten jokabidea da, hobeto. Albaceten jardungo bagina, dominak emango lizkigukete, kulturaren alde egiten dugun lan itzelagatik. Hemen delinkuentetzat hartuak gara eta Damoklesen ezpata zintzilik daukagu beti buru gainean.

Itxuragabekoa da. Jurisprudentiaren barruan enpresa bat behin ere ez da bera erantzule. Horretarako dauka enpresak administratzaile bat. Enpresa guztietan, Ogasunak egiten badu ikusketa bat, seguru aurkituko duela kosituren bat portzelanan. Zernahi gisaz, delitu fiskalik egon balego ere, edo beste edonolako irregularitaterik, erantzukizuna administratzailearena da. Erantzulea beti administratzailea da enpresaren izenean. Baneston Conde harrapatu zutenean, epaileari ez zitzaion otu Banesto ixtea. Gilekin izan ziren, bada, problemak Atletico Madrilen? Atletico ez zuten itxi. Eta berdín orain BBVarekin eta Banco de Santander-ekin, eta beste hainbat eta hainbatekin. Erantzulea epailearen aurrean administratzailea da, eta enpresari aurrera jarraitzeko ahalbide guztiak laga behar lizkioke eta lagatzen dizkio beti epaileak. Behar izanez gero, beste administratzaile bat jartzen da. Gainera, gure

enpresetan delitu fiskalik balego, hori epaitzea hemengo Ogasunari dagokio eta hemengo tribunalei, ez Auzitegi Nazionalari Madrilen.

Gure kasuan, baina, benetan atipikoak gara, ez dute jokutzen horrela. Eta horrela ez jokatzeko ETAgaz lotzen zaituzte. Handik aurrera dena libre. Hasteko, enpresa itxi egiten dizute. Administratzailea bera preso altxatu. Bestetik, lehenengo egiten dizuten gauza da, enpresa bere eduki dokumental guzti-guztietatik arras hustu, h.d., gero zuk, zure errugabetasuna erakusteko, beharko dituzun pieza guzti-guztiak, saleros eta harremanetako informazioak, memoria historikoa, dena, faktura txikieneraino, kendu egiten dizute artxibo osoa. Hori Poliziak edo Guardia Zibilak kentzen dizu. Gero epaileak eskatzen dizu, demostratzeko, ibili duzun ibilbidean, ezer arrarorik ez dagoela. Nola demostratuko duzu!? Erabateko indefentsioan uzten zaituzte. Gaur egun *Egunkaria*-ren lokalak giltzarrapoz itxita daude, eta demostratu behar da zehatz eta mehatz, kontaduria garbi eraman dela urte guztioan. Baina han sartzerik ez daukagu, kontaduria ikusi eta erakusteko!

Hau da, euskal kulturako enpresa edo erakundea bada, hasteko, hura «terrorismoarekin» nahasten da, horrek salbagoardia ematen du jendearen aurrean edozein kirtenkeria ilegal zurrizko eta gainera botoak lortzeko. «Guardia Zibilak ETari kolpe latza eman dio», adierazten dute telebistan estreinako egunean Barne Ministroak eta Aznar Presidenteak berak aurpegi tetrikoz: hainbat kolaboratzaile atxilotzea lortu da, dokumentu garrantzitsu asko bildu, orain informazioak ebaluatzen ari da Guardia Zibila, ez da baztertzen atxiloketa gehiago egotea. Guardia Zibilaren egundoko garaipena. Hau da, egundoko teatroa. Gero, egunak joan ahala, eguratsa pixka bat argituz doa berriro: eraman dituzten dokumentu guztietan ez dago bat bakarra konprometagarria, atxilotuak kale-ratuz doaz... Baina enpresa geldi dago sei hilabete, zortzi hilabete —hura aurrera aterako duenik, ez dago gero. Gainera, egin dizutena da, Espainiaren aurrean batik bat, baina internazionalki edo zure lanbidekoen artean ere, zure enpresaren izena kakaztu, mesfidantza sortu, eta joan zaitez orain inorekin harremanak eta lankidetzak bilatzera, beste kazetariarekin, editorialekin, Bankuekin, etab. Zeinek nahi du «terroristekin» kolaboratu? Dena gezurra dela, dakitenek ere, nahiago izango dute zuri berba gozoak esan eta beraiek zuhur jokatu, badaezpada ere Gobernuarekin ez zapuzteko. Isolatuz eta setiatuz zaude. Nahikoa lan duzu irauten, zeure burua defendatzen, inolako espantsiotan ametsik egiteko. Paralisatua. «Terrorismoaren» zeinuarekin markatua aldi baterako. Horixe baitzen helburua: kultur mugimendua paralisatzea.

Historia ez da hor bukatzen. Oharkabeki jendea jokabide hauen legitimatzaile bihurtzen da. Okerrago, laguntzaile ere bai azkenean, jokabideon helburuei begiratzen badiegu. Momentu honetan, esate baterako, bigarren atxiloketako guztiok etxean gaude; *Egunkaria*, lehen berak ipinitako administratzaile judiziala kendu eta atzera lehengo administratzaileen esku utzi du epaileak. Berri onak dira, nahi baduzu. Onak? Alegia, enpresa orain liki-



dazioan dago, langileak kanpoan, atxilotuak kalean, beharbada, ez dakit noiz, Inaki Uria ere aterako dela, pentsatzen dut. Jendea lasai eta pozik, bataila irabazi bagenu bezala, edo eman nahi ziguten jipoia, azkenean eman ezin izan baligute bezala. Baina eman digute. Analisia historiaren iturritik egin behar da, ez bukaeratik. Aberrazio bat da. Begira lehenago nola geunden eta nola gauden orain, eta zergatik hori dena. Jakina, egon gintezkeen okerrago. Beharbada izan ere izan gara ondorio okerragoen beldur. Murphyren printzipioaren arabera, apur bat okerrago beti egon omen liteke. Eta gu kontent gure gaizkian, okerrago bukatu ez dugulako, dena oso ondo bukatu delakoan. Aldika-aldika txikipuskatzen ari zaizkigu, eta gu kontent, kolpe bakar batetik lehertzen ez gaituztelako.

Zalantzarik ez dut, azken-azken finean, eraso hauek CESIDek, poliziak, Guardia Zibilak, buruenik Barne Ministerioak prestatuak direla. Epailearen egiteko guztia horietan, eskumakilarena da, nik uste. Estatu arrazoiaren izenean dena. Nahi dutena da, Euskal Herria berriro lehenago bezala zeharo lotu. Azken urteetako ibilbide guztia atzera moztu eta «betiko» ordenara itzuli. Arrakastatsuegia eta lotsagabeegia zaie oraingo Euskal Herria. Duela hamabost urte, Euskal Herria azkeneko furgoia zen European. Industria hondaturik zegoen, errekonbertsio astakoen egin zen. Euskal Herria lur jota zegoen. Ostera, urteotan berriro burua altxatu da; administrazioan, zer hobetu asko dago, baina Estatuan txarrena ez dela, ageri da; eta lurralde honek anbizio politiko batzuk dauzka. Ezin dute jasan Euskal Herriak hartu duen martxa. Gogora: lehen esaten zuten, «terrorismoaren» kausaz industriak ihes egiten zuela, ekonomia hondatuz zihoala, ez dakit zenbat hiritarrek Euskal Herria abandonatzen zuela, etab., ETA desegin behar zen. Orain hitzez hitz horixe bera Ibarretxeren Planagatik esaten da eta Ibarretxeren Plana behar da desegin. Ibarretxeren Plana «terrorista» ote da? Bada, Ibarretxeren Planaren aurka joateko ere, hori ere mila modutan, eta behin eta berriro, ETArekin nahasten da: ETari jokoa egitea da, arnasa ematea, helburuak berak dira, edo ideologia nazionalista bera, etab. Gurera etorritz: ezin dugu pentsatu —azkenean euskal kulturagintza gauza gutxi da—, haien helburua euskal kultura bakarrik dela, AEK, Martin Ugalde Kultur Parkea, baizik baita mugimendu sozialak ere, ekonomiko edo industrialak, kooperatibak, finantzarioak, komertzialak, h.d., kulturaren esparruan mugitzen den guztia bai, baina baita «euskaldunegia» iruditzen zaien beste edozer ere, beren Espainiaren kontzeptuarekin akomeatzen ez den zernahi. Ene ustea da, azken batean Euskal Herria lur kiskalia bihurtu nahi dutela, edonolako garapide oro moztu, beren ideologiaren linean ez badoa. Oraingoz euskal kulturarekin sartzen badira, ahulena eta kostu gutxienekoa bera delako, politikoki errazena. Ez du esan nahi, beste pauso batzuk eman nahi ez dituztela, parada duten orduko. Ikusi ditugu mehatxuak CLP/Euskadiko Kutxari, Eroskiri, etab. Eta hemen, gaurko mehatxuak biharko interbentzioak izaten dira; trumoiak hedabideetan ez dira izaten alferrik, gero Barne Ministeriotik oinaztarria etortzen da. Mehatxuak Jaurlaritzari berari, Legebiltzarrari, egin zaizkio lasai asko. Gernikako Estatutua ezabatzea behin eta berriro aipatu da. Hauek ez baitira bereziki «terroristak», ikusia dago, Gobernuaren egungo estrategian zein den erasoan egiazko itua. Hori ez da ETA. ETA poliziarentzat dago. Gobernuak beste lan batzuk ditu. Enpresa kulturalen aurkako erasoak aurreneko kapitulua baino ez dira.

Noraino joateko prest dauden, ezin jakin. Arauz, egokierak gerora nola aurkeztuz doazen ikusi behar. Edonola ere, oraintxe jada lortzen ari direna, zentsura izugarri bat ezartzea da. Zuzenean zentsura frankista bat ezartzea gaur egun gaizki ikusia legoke, nahiz eta poliki-poliki ematen ari diren urratsak ageriko zentsura bat ere jartzeko. Jartzen ari direna, zentsura kamuflatu bat da. Ezeuskaltzaleen aldetik, euskal kulturgintza guztiarekiko zentsura bat, inkisizio bat, fidagaiztasun bat arrunt. Baina geure autozentsuraren forma ezkutu bat ere bai: geuk egiten dugun autokritika faltsua, autokontzientzia okerra. Ez gara argitzen nonbait. Inolako justiziarik gabe *Egunkaria* ito dute, milaka jenderen ahalegin ikaragarriarekin lortzen da egunkari berria sortzea, eta lagunek berek: «Orain bai, hemendik aurrera gauzak zuzen eta garbi egin behar dira!», esaten dizute. Zer esan nahi dute, orain arte gaizki egin ditugula? Besteak: «Eutsi! Ez eman amore! Segi borrokan!». Borroka arma bat ote zen, bada, suntsitu digutena, eta ez enpresa kultural arras zuzen eta zuzenbidezko bat, Estatuan beste mila bezalakoxea? Injustizia hor dago.

Positiba dezagun, hala ere. Zer ikasi behar dugu guk esperientzia honetatik? Nola egin behar diogu aurre? Aurrera begiratu, ez atzera! Geure autokritika pixka bat egin nahi nuke nik hain zuzen. Zauriak mingarriak izan dira, ados: baina ezin gaitezke zauriak miatzatzen gelditu.

Benetan herri kurioa gara modu askotan. Europa osoan ez dago beste bat, *Egunkaria*-rena gertatzen da, eta halako manifestazioa egun batetik bestera altxatzen duena. Halako haserrea, halako atxikimendua. Haatik hurrengo egunean ere eguna argitzen du eta euskal kulturako enpresek jarraitu egin behar dute. Zer egin behar dugu guk erasoon aurrean? Organizatu, indarrak elkartu, enpresa berriak bultzatu. Eta horretantxe hain zuzen ez dugu pentsatzen. Atzera begira gelditzen gara, buruan jota, zartakoagaz konortea galdu eta, ahaztu balitzaigu bezala, etorkizunera gindoazela abian. Atzera begira jartzen gara, eman diguten egurrari begira.

Jotzen gaituzte, eta sekulakoa da ematen diguten laguntza. Baina badirudi euskalgintzako gure enpresak, guk geuk ez dauzkagula guztiz enpresatzat, espantsibotzat; jenero arraro bat direla, erdi klandestinoa edo, geroz eta normalagoa iruditzen zaigula horien eraso berri bat, situazio txar itogarri berri bat, eta ez dugu bestetan pentsatzen. Gaur erasotzen digutenean, bihar beste eraso bat etorriko dela, pentsatzen dugu. Eta batek pentsatzen du, hura ekiditeko gauzak ongi egin behar ditugula, gaurko eraso hau berari «logikoa» iruditu zaio nonbait. Besteak, lubakietan «eutsi» egin behar diogula. Gure amorrutan, mentalitate oker bat elikatzen ari gara, alienazio modu bat, Numantziara eta suizidiora garamatzana. Inplizitoki ematen du, geuk onartzen dugula, euskal kulturako esparru militantziakoa dela soil, ez enpresarialki antolatzeko eta sendotzeko. Egia da euskal kulturgintza lehenago bakoitzak bere militantziaz eta lanez jaso dugula. Hori izan da aurreko fasea. Alta oraindik ez dugu kulturaren esparru enpresarial dibertsifikatu batean bezala pentsatzen. Militantziarako eta gertatu denaren analisirako elkartzen gara,



eta buruan ez daukagu oraintxe hasi eta enpresa berriak sortu eta indartzeko pentsamendua. Gure jarrerarekin, akordatzeko, are geure defentsa bezala, borondaterik onenaz, berretsi egiten dugu erasoan azken helburua, ez uztea alegia euskalgintzari enpresarialki garatzen, bulkada berriak ematen, euskal kulturgintzari azpiegitura industrial bat eratzen. Geure minean, kontzientzia txar, edo hobeto kontzientzia oker, faltsu, beldurtu batean murgilduz goaz.

Utz ditzagun, beraz, atzokoak atzo, eta goazen beste zerbaitetan pentsatzera. Hau da, autoan bazoaz, ez duzu pentsatzen, edozein momentutan istripu bat izango dut eta hil egingo naiz. Istripua beti da posible, baina ezin da autoan ibili beti istripuan pentsatuz. Etengabe istripuan pentsatzen baduzu, ez duzu autorik erosten. Euskal kulturaren lanean ari bazara, ordea, edozein momentutan istripu bat izatea logikoa dela, pentsatu behar duzu beti non-bait, edo halaxe pentsatzera ohitzen ari gara. Baina beti istripuan pentsatzen bazaude, ez duzu enpresarik antolatzen.

Beraz, ahaztu hori eta lanera. Joanak joan. Beste pentsamendu batzuk behar ditugu aitzina begira.

Besteak «orain bai, hemendik aurrera gauzak zuzen eta garbi egin behar dira!», esaten dizu adiskidetsuki. Suposatzen da, orain artean gauzak ez ditugula guztiz zuzen eta guztiz garbi egin, eta horregatik datozela erasoak, gu tranpetan harrapatzeko. Ez. Erasotzen badigute, ez da tranpetan gabiltzalako. Gauzak, hobeto bai, baina legalkiago eta garbiago ez daukagu egin beharrik batere.

Garbi gera dadila: ezer ez militantziaren aurka. Euskarak behar-beharrezkoak ditu EHE eta demoak bezalakoak. Militantzia barik ez dugu ezer lortuko. Egin dezagun, bada, militantzia eta lana, enpresak egiten euskal kulturarentzat. Badugu herriaren laguntza, asma dezagun antolaketa egiten.

Enpresa bat —eta euskal kultura— aurrera ateratzeko, profesional onak behar dira. Profesionaltasuna lan bat, produktu bat ongi egiteko gogoia eta bokazioa da. Enpresa aurrera ateratzeko borondatea. Beraz, profesionala izan nahi duenak, aurrena pentsatzen du, non lan egin ahal duen normal, tranpatxorik eta, beraz, istripurik gabe. Ahal bada, bere lanaren justifikazioak epaileari azaltzen ibili beharrean pentsatu gabe, eta azaldu behar izanez gero, kontu garbiak erakusteko beldurrik gabe. Autozentsura edo autokritika faltsuko klima bat sortzen badugu euskal kulturgintzaren inguruan, euskal kulturaren lan egitea nahitaez poxi bat legez kanpo edo erdi tranpaz ibiltzea balitz bezala, erasotzaileen susmoak geureak egiten ari gara, arrazoi ematen ari gatzazkie. Susmoak doan daude. Baina holako susmo giroa hilgarria izan liteke euskal kultura enpresarialki antolatzeke asmoarentzat. Aitzitik, harro egon gaitzeko eta egon behar dugu, gure enpresan guk gauzak Estatu osoan beste ezein enpresak baino hobeto, gar-

biago, errigortsuki legebeteago, egiten ditugulako. Buruetatik kendu behar dugu, euskal kulturgintza marjinazioan talde erdiezkutuko batzuen militantzia baino ez delako ideia: enpresen eginkizuna da honez gero. Eta burutik kendu, pittin bat ere legez kanpokoan izan daitekeelako ideia. Enpresa normal, sendoak eta efikazak behar ditugu. Militantzia bai, eta profesionaltasuna ere bai, izango duten enpresak. Gero jakin badakigu, euskal kulturako enpresa, hala ere, automatiko susmopean dagoena. Hori beraien problema da. Guk gure lana ongi eta garbi egingo dugu, orain arte egin dugun bezalaxe.

Espainiatik euskal kulturaren subentzioak maiz kritikatzeko dituzte, ez dituzte nahi, salaketarik gaiztoenak egiten dizkiete behin eta berriro. Are gutxiago nahi dute euskal industria kultural sendo bat. Evidentea da, ordea, bizitasun sozial normalizatua izateko, euskal kulturak bere sare industrialak behar duena, autonomia, bere buruaren jabea, indartsua, dibertsifikatua. Euskal kulturak gaur duen desafiorik garrantzizkoena eta premiatsua horixe da. Industria kulturala esatean, ez dut distribuzioa bakarrik esan nahi, bai prentsa guztia, liburugintza, zinema, etab., azpiegitura, kultur produkzio guztia enpresarialki antolatua, burujabe. Oraintxe bertan, hasiera bezala, Parke Kultural bat, dauden indarrak batzeko, Kulturaren Kontseilu bat jendaurreak ezagutua eta efektiboa, egunkaria, bailara eta herrietako aldizkariak, irratiak. Proiektu inportantea da hori euskararentzat, eta badakite Madrilen. Kapitulu estrategiko batzuk lehenbailehen enpresarialki antolatu behar ditugu, gure inguruetakokulturatan bezalaxe. Entziklopediaren etxe bat, adibidez: Euskal Herriak behar duena, ez da behin entziklopedia bat prestatu, saldu eta kito. Ekitaldi bat. Euskal kulturaren behar duguna azpiegitura industrialak da. Etxe entziklopedikobaten zereginak jarraitua izan beharko luke, lurkarta, hiztegi, hamaika modutako testugintza etengabekoa, irakaskuntzari zerbitzu ezberdinak eskaintzea, hain zuzen proiektu entziklopediko handi batean lanekartuz euskal historialari, geografo, humanitateetako irakasle, zientifikoak, produktu dibertsifikatuetarako. Kulturaren enpresak behar ditugu, euskara gizartean indartuko dutenak. Horixe da guk behar-beharren duguna eta, bistan da, beste batzuek gutxien-gutxien gura dutena, esplikatzen zuen Joxemari, enpresako lankideekin solasean.

3. Perspektiba: enpresako langile atxilotua

Zergatik *Egunkaria*-ri eta zergatik orain!? Egia esan, nolabaiteko arrazoi arrazoizkoa, ezerk ez dirudi honetan gutzian. Deus ez da ulertzen, arrazionalki eta legalki ulertu nahi bada. Politikoki, bai. *Egunkaria* enpresa kultural estrategiko bat da. Hortik aurrera, loteria oraingoan berari tokatu zaio, beste arrazoi berezirik ez dago. Berdin izan zitekeen beste bat, diseinaturik daukaten planean. Holako ekintzei beraiek errentabilitate politiko izugarria ateratzen diete beti. Kontua da, momentuan errentabilitate handiena zerk eskaintzen duen. Beraz, izan liteke soil, ETAK Pagazaurtundua hil duela Andoainen, Andoainen bertan beraiek *Egunkaria* ixten dute egun batzuk geroago. Begira



daude, erasotzeko. Noiz jo? Beraiek erabakitzen dute erritmoa. Arrazoi berezirik egon ez dago. Gaur ez, atzo ez zegoenik. *Egunkaria*-n ez, *Karmel* edo *Kili-Kili*-n, *Elhuyar*-en, Euskaltzaindiaren *Euskera*-n, ez dakit non, berdin-berdin ez dagoen arrazoirik. *Egunkaria*-k ez ditu gauzak beste edozeinek baino okerrago egin, beste edozein baino ez da gaiztoagoa, ez hobea. Beste esanahi bat du, hori bai, baina euskal kulturaren beste edozein bezalakoxea da.

Hau ez da euskalgintzaren aurka egiten den aurreneko eraso, eta, pentsa genezake, besteen ibilbide berdintua joango dela. Begitan hartua dute jende bat, hori ikusten da galdeketetan. Hor daude *Egin*, *AEK*, etab. Behatzen badugu gauzak behin eta berriro nola arieratu diren, taktika arautu bat bezala erreparatzen da. Aurrena txikitu egiten zaituzte. Gero, poliki-poliki, jende gehiena berriro kanpora dator, lehen egunetako zalaparta apalduz doa, ikaragarritzko salaketen sinesgarritasuna pixka bat gandutuz beraienzat ere frogarik inon ez delako ageri, ez baitago, ikerketa polizialentzako denbora luzatzen uzten da, hedabideak arazoaz ahaztuz doaz, alegia, dena ia deuseztan bukatzen da, *AEK*ren kasuan bezala (*Segurantza Sozialari* ez pagatzea bakarrik gelditu da azkenean «terrorismo» guztitik). Bizkitartean azken honi ez zaio ematen publizitaterik, etekin politikoa aterata dago eta kaltea egina, desprestigioa, afektatuen ikara, enpresaren porrota, edo gutxienez kraskadura bortitza. Beraz, lortu behar zirenak lortuta. Epaileak egin du bere egitekoa, politikoa hurrengo aktara pasa daiteke.

Jokoa maltzurki muntatua dute. Alde batetik, sarekadak doiki hesituak dira, jende hautaren kontra zuzen. Ez dute itsu-itsuan botatzen kolpea, badakite zeinen bila doazen. Bestetik, jomuga diferenteenen aurka batera botatzen dute sarea, huts eginda ere edozein informazio interesgarri edonondik biltzeko moduan beste baterako. Autoa zure aurka «edozer gauza edozeri buruz» bezala egoten da zeharo jeneriko formulatua, poliziari zernahitsu permititzen dio. Teorian *Egunkaria*-ren aurkako ekintza batean, *Jakin*, *Argia*, *Zabaltzenen* bi bulego, Euskalgintza Fundazioa, ikastolak, *Plazagunea*, euskal kulturako antolakundeen lantokiak miatu dituzte eta denetariko materialak eramane. Material hauekin, kasu honen ondoren beste bat munta lezakeke. Eta beste bat, eta beste bat. Ene lagun batek, Franco ondorengo euskal kulturaren ikerlarienzat artxiborik onena Madrilen dagoela, esaten du txan-txetan.


Ondorioa da enpresa itxita dagoela, eta beste zenbait enpresa —*Martin Ugalde Kultur Parkean*—, ez itxita, baina bai kontuak blokatuta, eta gu denok airean. Kristoren txikizioa.

Informazioa lehendik dute nahi adina. Zure telefonoa, minutuz minutu, urte pare batean kontrolatu dute. Mugimendu guztien segimendu milimetrikoa egin dizute: noiz non ibili zaren, norekin bazkaldu duzun, zenbat bider, non izan duzun hitzordua batekin, bestearantzat behin andralagunari nola eman diozun gutun bat, postaz bidali orde (biek bulego berean lan egiten baitute). Izuturik gelditzen zara. Biluzten zaituzten sentimendua daukazu galdeketetan. Dena dakite, beraiek bilatzen dutenaren bila. Handik aldara litzakeen gauzetan, ez dakizkite

gauzarik elementalenak ere. Eta adierazten hasten bazara, ez zaizkie interesatzen. Arras ikerketa tendentziotsu bat, alde zurretik erabakia daukaten tesiarentzat frogatzen bila soil-soil. Amorratuak, ez dagoenaren bila. Gauzarik naturalenak konspiratiboak bihurtzen dituzte. Ez den zerbait, bilakatzen da dena haien begietan. Beraiek asma-tuta daukaten labirinto batean galtzen zaituzte. Erabat mareatzen zaituzte beren suposizio, gezur, eta irudikatzen dituzten erlazioekin. Ja ez duzu ezer ulertzen. Oraindik mareatuta segitzen dut nik.

Hori neure arazoa da, noski, baina nik ez dut uste, alderdi hau historia guztian aintzat hartu gabe baztertekoa denik. Enpresarialak aparte, ondorio pertsonalak daude: hainbat jende detentua, lankide pare bat oraindik kartzelan, inculpazio pila bat edonorako norabidetan, batzuk salaketa benetan izutzeak inolako funtsik gabe, ETaren pertenezia eta terrorismoa kasu. Zure eskailerako bizilagunek ikusia dute prentsan eta telebistan, zu ETarekin omen zabilzala. Martin Ugalde Parkeko lagunaren kasuan, terrorismoaren inculpazioa gero baztertu egin du epaileak. Beraz, ez dira terroristak, ez terrorismoaren susmagarriak. Hala ere terrorismoaren aitzakiarekin hartutako neurriek haien erantzunak ere zutik jarraitzen dute, guretzat bezalaxe: zure konputagailu pertsonala Guardia Zibilean dago, egunoro edo hainbatoro epailearen aurrean agertu behar duzu, zure kontu pertsonalak blokatuta, lanerako behar dituzun material elementalenak falta zaizkizu, agendak ere, Iparraldera ezin zara pasa, eta guk etengabe dauzkagu han zereginak, norbaiti gidatzeko karneta ere kendu egin zioten eta misterioaren bategatik ez diote itzultzen... Kondizionaturik zaude bizimodu osoan. Aitona bihotzetik gaixo dago eta gurekin bizi da. Pentsa haren estualdia gau hartan. Haurrek oraindik ere bakarka ez dute egon nahi izaten, polizia altu batek gau osoan begirapean eduki zituen etxeke gelan, miaketa egiten ari ziren bitartean. Pijama hutsean gau osoan, hotzak. Ezta sartu ere, ez dira egiten bakarrik gela horretan oraindik.

Indefentsioa totala da, atxiloketatik hasita. Etxeko liburuetatik ehundik gora eraman zizkidaten. Biografiak, historiako liburuak, Euskal Herrikoak, holakoak dira nire irakurzaletasunak: denak Espainiako Isbn-arekin, legezkoak beraz. «Cuánta literatura terrorista!», entzun diot komentatzen guardia zibil bati, zakuan sartzen zituen bitartean. Paperak, nireak, denak kendu dizkidate. Andralagunaren konputagailua ere bai, neureaz beste, eta ikastolan eskola emateko andralagunaren anotazioak, kaierak, irakasmaterialak, dena. Bankuko kontu pribatuak, gutun pertsonalak, oportetako oroipenak. Guztia plastikozko poltsa batzuetan sartzen dute, eta «contiene documentos» idazten dute horietan, ezer espezifikatu barik. Zaku eta kaxa pila betetzen dute. Etortzen da auzitegiko idazkari bat, eta haren eta zure aurrean prezintatu egiten dira poltsak, eta idazkariak sinatzen du, eta zigilua jartzen du. Eta esaten dizute zin militar bat bezain serio: «Y esto sólo se podrá abrir en su presencia». Gezurra, zeren eta gero, galdeketa hasi orduko, han dauden paper eta dokumentuetako gauzen gainean galdetzen dizute. Batzuetan prentsan ere agertu izan da, kausitu ei dizuten zer edo zer. Nahi dutena, egiten dute. Bila ez zetozen dokumentu pila bat, kentzen dizute, pribatuak, zerikusirik ez daukatenak zure lanagaz edo egunkariagaz. Batzuk guztiz-gutztiz



intimoak ere. Azkenean ez dakizu, zer kendu dizuten. Gaur bertan oraindik, bilera bat dudala norbaitekin eta, hasten naiz azken bilkurako noten bila, eta ez daude, eramanak dituzte. Gero esaten dizute, dena itzuliko dizute-la: ez dizute ezer itzultzen. Ez dituztela irekiko, irekitzen dituzte. Galdeketan, beraiek bai eta zuk ez daukazun paperetarik, zure perpaus solteak aipatzen dizkizute, beraiek nahi duten testuinguruarekin eta beraiek asmatzen dioten interpretazioaz, eta zuk justifikatu egin behar duzu. Indefentsioa absolutua da.

Isilik gelditu da langilea.

Euskal kulturaren autonomo samar dabilen oro da gaur susmagarria. Euskal Herriko Unibertsitatea bera. Zergatik ez? Gotzainak ere ez al dira susmagarriak, agintearen gustukoak ez direnean?

4. Perspektiba: irakurlea

Hau dena Estatuaren kaleborroka da, bitartekoetan, gehitu nuen nik iruzkin moduan. Edozein azken helburu dutela ere —eta politikoa da, zalantza gabe—, helbideetan oso eskrupulu gutxi dute, eta ikus dadila, nahi dute gainera, batere eskrupulu barik jokatzeko prest daudena. Terrorea Estatuaren monopolioa da. Beren-beregi eszenifikatu egiten dute Estatu terrorea, eta *reality-show* baten eran publizitaterik handiena ematen diote irrati-telebistetan, mundu guztiak ongi hauteman dezan. Agian horrek bozak ematen ditu. Edo angustia bat sortzen du, eta hor dago gero Barne Ministro jauna, superman salbatzaile, jendeoste ikaratuak ikaratik lasaitzeko —berak beti garaitzen du ETA gaizto hori, telebistan ikus daitekeenez. Ekintzak arbitrario hutsak dira, baina zehazki estudiantuak, zenbat eta zein jende atxilotu, bakoitza nola, eszenifikazio diferentearekin, zer miatu eta zein ordutan, zer konfiskatu. Gauez etortzen da atxiloteta, terrorea gehitzeko. Polizia morroskoek aurpegi-buruak pasamontaina beltzeekin estalita, garrasika, ate joka, atea puskatzeraino, armatzarrak eskuetan, lubaki baten asaltora balihoaz bezala, ez bake-bakean lo zegoen idazle izutu bat etxean arrastatzera. Egunak iraungo dien dardaratan geldituko dira etxeok nahiz auzoak, eta eraman dutenak, agian zortea du eta ez du pasa beharko, Martxelok esaten duen hori —eta gainera juzgatu egiten dute esaterren. Edo agian ez du izango zorterik.

«Historiaren pendulua», komentatu du norbaitek ahapetik. Francoren heriotzarekin batzuentzat hasiera bat izan zena, besteentzat gehiegikeria bat izan bide zen, eta moztu beharra dago. Errebantxaren ordua da. 40 urte-tan aginte absolutua eduki zutenen haurrek, orain gehiengo absolutua dute. Behin isilik joan zirenen itzulera zaratatsua da. Konplexurik gabe orain. Beldurrik edo lotsarik gabe. Familia berak dira, tradizio berak, kultura bera, atxikimendu berak bai sentimental, intelektual, eta bai politikoak, interes berak, pentsamenduak eta elkarloturak

berberak. Errepikatzen ez omen den historia, errepikatzen ari da. Errepika hori besterik ez dira Aznarren Gobernu eta Mayor Orejaren Plana.

Bi gauza ez dira ahaztu behar, jarraitu dut nik. Bat, agitzen ari den hau guztia Plan batean kokatzen dela. Estatuaren Plan bat. Bi, euskalgintzako langileak ez zaretela Plan horrek azpian harrapatzen dituen bakarrak, ez harrapatuenak. Gaur bertan *Berria*-n Antton Valle de Lersundiren gogoeta irakurtzen dut, «Espainiako Estatuan epe motzagoa egiten duela kartzelan emakume bat bortxatu eta gero akabatzen duenak Euskal Herrian zaborrontzi bat erretzen duen mutikoak baino» (2004-01-11). Egungo Euskal Herrian justiziaren estreinako biktima justizia bera dela, esan behar da beharbada. Bestalde, kulturgintzako beste esparru batzuk ozta direla gutxiago esetsiak euskalgintza idatzia baino, ezin da ahaztu. Takolo eta Pirritx eta Porrotx pailazo terroristak dira, Fermin Muguruzaren ahotsa dinamitazkoa, Julio Medemen filma subertsiboa, etab. (zuzeneko zentsura jada ez da arrisku bat bakarrik —ahaztu egin al dugu Nafarroako Gobernu eta Eusko Ikaskuntzako Entziklopediaren afera?). Gure hezkuntza sistema guztiari, eta ikastolei batik bat, egurra ematen, ez dira inoiz nekatzen.

Hala ere, muga nadin gaur, bestelako biktima askoren baimenaz, euskalgintzako mundutxoan zuek pairatzen duzuen erasora. Oraingo eraso hauen atariko maratila, Mayor Orejaren Planak, bere filosofoen Gortearekin, mar-txan jarritako kaleborroka intelektual edo mediatikoa da. Bat-batean, mekanikoki pilotatua baino doiago, dis-kurtso politiko espainolean brastako iraulia ikusi dugu: «demokrata guztietatik» jauzi egin da «konstituzionalis-ta guztietara», eta denek ETArek bortxakeria kondenatuzetik Ibarretxeren Plan infernutarra eta erabat euskal nazionalismoa —gaizkia hori, gaitz ororen iturri; hots, ideiak berak, pentsamendua—, *una voce et in choro* gaitzestera pasa dira, popularrak eta psoezialistak eta Espainiako Artzapezpiku Primatua elkar eskutik harturik, kazetariak, nobelista eta poetak, tertulianoak, ateistak eta teologoak, Gotzainen Konferentzia, Madrilgo Errege Akademiak, Mayor Orejaren filosofoak ororen buru, artilleria inperial guztia. Rouco Kardinalaren karitatea, bakea, «ehundaka urteko elkarbizitza», katedratikoaren historia, sindikalistaren solidaritatea, batasun handira omen doan Europa, munduan dena euskal nazionalismoaren anatema duzu. Operazio berean, lehenago ETakoak lau sokormazo burugabe izaten ziren, gutxiengo infimo basotar bat, euskalerritarren gehien-gehiengo demokratikoak hamaika aldiz adierazi omen ziona desagertzeko eta entzungor setatzen zena, etab. Tupustean (diskurtso hura guztiz ahaztu gabe, komeni bada) ETakoek milioiren bat izan behar dute, Euskal Herri osoak Etarra dirudi, edo ETari egiten dio jokia, lau artaburuak izpiritu arrafinak bihurtu dira, superraxeri, nahinon subtilki infiltratuak daude, nahinor da ETakotzat susmatua, ETak dena dominatzen du, ETaren kolaboratzaileak edo txotxongiloak gara denok Setien eta Ibarretxeren gregoriotik Su ta Gar, Berri Txarrak, Leihotikan eta Soziedad Alkoholikaren rockeraino.



Seismo hauek politikoki eraginak, eta berak ere barnenean politikoak direla, irudimen gehiegi gabe asmatzen da. Denak kalibre berekoak ez dira, baina marka bereko eskupetak darabiltzate denek. Filosofo sasianarkotik Iruñeko Gotzain Fernando Sebastianganaino, diskurtso «berriaren» marka Konstituzioa da beti: Konstituzioa, horra eukaristia nazionaleko ostia santu berria, ogi zerutik etorria. Espainia esan beharrean, Konstituzioa esaten da orain. Frankismoan «la sagrada unidad de España» esaten zena, orain «cohesión territorial» da. Klaru-klaru Espainia esateak oraindik erreparo pixka bat ematen die ausaz batzuei; deblauki espainolistak aitortzea, diren bezala, nabarmenegi frankista ez ote litzatekeen, begitantzen zaie apika (progre moduko historial bat izateak badu bere prezio txikia). Denak fedegartsuki konstituzionalistak eta «eznazionalistak» dira.

Politika politikoei utzirik, goazen euskalgintzatxoko zuen katramiletara. Estreinako ebidentzia denontzat da, epaileen erasook, aurretik eta gaintetik eta azpitik, hedabideen kanpaina mediatikoetan bilduak etortzen eta joaten direla. Edozeinen arta hotsegiten du aspalditxoan Madrilgo hedabide askoren heriosuak, sistematikoki euskalgintza bere atal guztietan beti arrazakeria eta bortxarekin asoziatzeko, euskal kulturaren lauki ahalik negatiboena pintatzeko. Atergabeko kanpainaren barruan bizi gara azken urteotan: arrazistak eta sektarioak gara, ezjakinak, etab. Arrazoiok eskuarki ez dira izaten batere orijinalak (Torrealdaik bilduak ditu *Jakin* 123/124an, inori interesatzen bazaizkio). Asko, XIX. mendeko topikoak dira; ez gutxi, askoz lehenagokoak. Originala edo hein batean berria, infanteriaren alboan eliteko tropatxo baten antolakundea da, «euskal intelektual» bereziki gerra honetarako trebatuez osatua. (Esan behar da, logikak hemen ez duela beti berdin funtzionatzen: hala, gaur diskurtso demokratiko politically korrektoan, Euskal Herrian bizi den oro euskalduna da; intelektual horietako batzuk aspaldian Madrilen bizi dira, eta horiek ez dira tokian tokikoak, badute besteek ez bezalako esentziaren bat, euskaldunak izaten darraite). Intelektualok demokratikak eta eznazionalistak dira beti, eta jeneralean biktimak. Euskal arazoei buruz hedabideetan hitz egiten dutenean, besteok gai horietan euskaldunak izateagatik dugun minusa, haiek plus bat daukate euskaldunak izateagatik. Objektiboak dira, ez dira fanatizatuak, heroikoki etikoak dira denak, asko dakite (asko ez, dena). Horiek mintzo direna —eta erruz mintzo ohi dira—, egia absolutua da. Katedratiko edo profesore espezialista bezala sinatzen dute kazetako artikulua. Abertzaleen aurka beste guztiek bezalakoxe topikoak lotsagabeago eta autoritate handiagoz dispartatzea aparte, beren ekarpen partikularra goi-mailako argumentua da. Egunoroko ika-mika baino sakonagoa. «Zientifikoa». Hau da, beren espezialitatea, politika politikatik haratago eztabaidatzea da; politikatik kanpo, baina politikaren barruenean, haren oinarri filosofiko ezkutuetan, edo beraiek hala suposatzen dituztenetan, alegia, hilkorren komun ikasigabeak ez dituenak atzematen bere begi soilekaz, baina kintesentzialak direnak, aburu politikoen sakonean sakon egiaz dagoena zuzen hauteamateko, eta horregatik orain profesore filosofoak sakonki argitzen dizkionak kazetan. Filosofoaren espezialitatea sakontasuna da. Mayor Orejaren filosofoak demostratuki demostratua uzten dio irakurleari euskal abertzaletasuna, ez bakarrik ezmoderno dela (abertzaletasuna ja XIX. mendean pasea zegoen, Bizkaiko PSOeren arabera, eta

beti pasatzen ari da oraindik), baizik —hau da berria— esentzialki antietikoa dela, esentzialki antidemokratikoa, antisoziala, eta barne-barnenean, psikopatologiako arazo hutsa. Abertzaleak eta euskaltzaleak etika gabeko jendea gara; baina, funtsean, burutik gaixoak garelako, gaiztoak garelako baino gehiago. Gaixoenak ETakoak noski, eta beste denok antzekopareko. Abertzale eta euskaltzaleen errebindikazio guztiak inolako funtsik gabekoak dira eta sozialki zeharo kaltegarriak: izan ere, euskal naziorik ez dago, inbentu bat da; nazionalismo onik ez dago; nazionalismoa bere jitez fanatismo eta bortxakeriaren iturri nahitaezkoa da; zuzenean demokraziaren ukazioa da; hizkuntzak tresna batzuk dira, ez dute eskubiderik; are eskubide bakoiztiarrak baino ez dago egon, ez kolektiborik (ondorioz, hizkuntz politika, deus egon behar ez lukeen eskudantzia da politika demokratikoan); euskararen exijentzia asegaitzak krispazio sozialaren eta bortxaren kausa dira; euskara proiektu nazionalistaren elementu bat besterik ez da (ja «guztion altxor bat» ere ez da intelektual hauentzat), nahi dutenek hura zain dezakete indibidualki, gizarteak ez dauka zergatik hura babestu, ez inori ikasarazi, etab. (Gobernuak are gutxiago); euskara galduta Euskal Herria orain bezain Euskal Herria izango da; euskararen heriotza batzuentzat subjektiboki larria izanen da, objektiboki ez du axola handirik, hizkuntza asko hiltzen da munduan eta ezer ez da pasatzen, etc.

Hori dena izan liteke berez iritzi legitimoa, hemen ez ditut autuok horregatik aipatzen. Larriki ohargarriagoa, horietako eraso askoren modu gutxi-asko pertsonalizatua edo izendatukia da, eta izaten dituen ondorioak: Martxelo ETaren bozeramaile da (alegia, interbista bat egin du); ikastoletan hau eta hori irakasten da (Nafarroako Gobernuak testu «ortodoxoak» kontrasubentzionatzen ditu), Unibertsitateko irakasle abertzaleek hori eta hura dagite ikasle presoekin azterketetan (eta, kasu konkretu bakar bat erakutsi izan gabe, preso guztiei UPV-EHUn estudiatu ahal izatea debekatzen zaie). Ikusiak ikusita esan behar da, zoritxarrez holakoak ez direla eztabaida dialektiko zilegizko baten parte naturalak bezala egiaztatzen ari, artez prestaturiko aitzinsua bezala baizik gero Gobernuaren oldar bestela onargaitzentzat. Elez eta idatziz erasotzen da lehenbizi, atxiloketa espektakularrez eta debekuz gero. Halako nor edo zer funtsean ETA zela, ETaren organoa zela, hiltzaileen zerbitzuan zegoela, behin eta berriro mila aldiz publikoan errepikatu eta gero, hasieran zurrumurrua baino ez zena, ebidentzia da gero, azkenean poliziaren interbentzioak ezinbestekoa ematen du erremedioa jartzeko. Hau ez da zinkulin-minkulin hanka punttetan etortzen (autozentsura dezadan pixka bat badaezpada konputagailua!). Elefanteak portzelana dendan, badakizu, zer egiten duen. Triskantza galanta. Ez da egonen, hala ere, ezeren esplikazioak eman beharrik, aurretik daude emanda. Inor ez da harrituko, Euskal Herrian kulturagintzako lanetan «terroristak» harrapatu dituztela entzunda, aski esanda zegoen, nolako jendilajea zen hura. Pancorbotik behera denak pozarren. Astakeriarik handienak ere ahazkarriak izango dira Espainian, baldin jendeak, prentsa kanpainak berek sartu dioten psikosi eta antsia kolektibotik, ekintza polizialokintxe deskargatzen badu goganbarra. Jo beharra dago ETA madarikatu hori eta, joz gero, berdin da zer nola jo, euskal munduan jotzen bada. Teknologia psikosoziala. Iritzi publikoa landurik dago: egurra libre. Horrore eta katarsi nazionalen programaren aldaera moderno bat zirku politikoa, zezen



korrida edo Ostiral Santu andaluzen estiloan, guztiz sanaa herriaren osasun demokratikoarentzat. Guztiaz bero-bero informatzea prentsarentzat ez da eginbide konstituzionala bakarrik, negozioa ere bada biribila. Giro horretan, egunkari bat itxia, atxilotuak bizpahiru kazeta zuzendari, are batek torturatua izan dela jendaurrean salatzea, beste atxiloketa bat arriskatzen ausartuz, albiste hutsala izango da Espainiako beste kazetari guztientzat, solidaritate oso zelotsukoak bestela gremiokoekin, baldin atxilotu haiek, dirudienez, aski konstituzionalistak ez omen badira, eta telefono deitxo bat bakarra ere ez da egongo Madrildik *Egunkaria*-ra, gutxienez zer gertatzen den informazio galdezka (baina *El Diario Vasco*-tik ere ez), euskal kulturako jendeagaz hori dena gertatzean gertatzen dena ez baita, gertatu beharra zegoena besterik. Beraz, ezer ez da gertatzen. Atxilotua izan eta Joan Mari Torrealdeai ziegan, denok dakigun tratua, hartzen ari zen ordu beretan, haren izen ona laidotzen ari zen goizeko irratitik intelektual mediatiko horietako bat, ezer izatekotan hari esker ona bakarrik zor diona. Biktimak omen diren batzuk, ez dakit nork seinalatu eta ETAK mehatxatu dituela, kexu direnak, kapitainak dira berak besteak seinalatzen: Uria ETAREN ideologo! Halako kazeta(ri) ETAREN morroi! Norbere herrian inor ez omen da izaten profeta. Joan Mari, tamalez, bere herrian eta bere buruaren suertatu da profeta dohakabe. *El libro negro del euskera* argitara baitzuen, harritu eta izuturik behar izan zuen egiaztatu, nola kritiko askok liburua behin eta berriro erakunde armatuaren agiri eta ekintzekin lotzen zuen (arteak kartzelan, haren izena laidoztatzen ziharduela, aipatu dugun horrek berak, besteren artean). «Euskalgintza auzitan?» izenburuko saioan (euskalgintzari buruz/aurkako arrazoi «berrien» bilduma bat) Joan Marik taktika hori salatuz erantzun zuen *Jakin*-en, agertuz nola jokabide doilor hori edozein euskaltzale militante anulatzeko sistema mekaniko bat bilakatua zegoen, eta nola berari bezalaxe eta are okerrago gauza bera beste lagun batzuekin jazotzen ari zen, behin eta berriro ETAREkin eragabeki lotuak izaten ari baitziren hedabideetan. Beren ideologiakoa ez dutena, automatiko ETAREkin lotua dago. «Ikusteko dago hori guztia debaldetan gertatuko ote zaigun», aitortzen zuen beldur justifikatua (*Jakin*, 123/124, 152 orr.). 2001eko martxoan hori. 2003ko otsailean, ezer ez zela debaldetan gertatu, ikusi dute berak eta bere lagunek.

Adituak dira intelektual mediatiko supertxorrotx hauek beren lanean, gure testuak eta ideiak ez bada intentzioak ikertuz, barneneko misterioan denok «ETAREN entorno» gaiztoa gabela deskubritzeraino, zulatzen gaituztenak. Gaitza da, esaten dutena, beraiek ere sinesten dutenik, sinestea. Menturaz, denek elkarri gezurra esanez, denek elkarri sinesten ikasi dute. Batzuek bederen, lehenago beraiek kritikatu izan gaituzte erdeinu ez gutxiz, ETAREN aski hurbil ez geunden kulturalistak eta ilargitarrak omen ginelako —berak Etar zindo iraultzaileak zirenean artean. Nola bat Etar sutsua izatetik mundu guztia sutsu ETAKotzat salatzerara pasatzen den, hori bai, psikologia indibidualarena izanen da kontua, ez da nire arduragaia. Interes soziologiko handiagokoa guztiontzat argitzea genuke, nola etortzen diren gizarte batean politika eta hedabideak elkarren lehian, nor baino nor, sinetsi ezinezkoaren sinetsi behar kolektibo bat masiboki eraikitzea, azkenean denak, epaileak barne, arrunt sinetsiak egoteraino —antza—, higitzen den edozein lainoren atzean, ETAREN eskua edo ETARI ematen zaion eskua dabilela, imposible balitz beza-

la Euskal Herrian deus egitea —kulturan behinik behin— ETArekin zerikusirik ezer gabe, ez haren alde eta ez aurka joan nahi gabe, berdenboran irmoki interesatuak egonez hura bera gurekiko ez dadila aurka behintzat egon, beste inor ez bezalaxe, ez gehiago eta ez gutxiago (etsairik ez dugu euskalgintzan behar!), guk geure lana txukun egin guraz bakar-bakarrik, ahal den guztiekin adei, edozeini (ETAri eta entzun nahi diguten alderdi eta erakunde publiko guztiei, eta epaileei ere) garbi esplikatur zein den gure asmoa eta jokabidea, eta guzti-guztiengandik hala ere libre eta beti menpegabe, aspaldiko urteetan gure kulturgintzaren filosofia deklaratur den moduan. Honentzat guztiarentzat itsu-itsu dagoen psikologia (edo histeria) kolektibo horren bilakabideaz, hedabideek eta politikoez berek urteotan produzituaz, guztiontzat litzateke instruktiboa ikerketa bat. Bitartean, praktikan gehien interesatzen zai-guna oraintxe, artekogabe ondorioak edukitzen ari delako gure gainean, guztiaren tailu politikoan datza.

Politikoki, labur esan, hauxe da gakoa: honek denak berriro sukaldera itzularazten duela euskara. Esparru pribatura, frankismo betera. PPren hizkuntz politikaren xedea (PSOEren zurkaitzagaz), laborategi nafarrean suma daitekeenez, euskara berriro desagerraraztea da bizitza publikotik, kaletik, trafikoko seinaleetatik ere ahal bada. Nola exiji liteke epaileek, ezertarako balio ez duen hizkuntza txatxar hori ikasi behar izatea, espainola denek jakinda!! Sukaldera eta baserrira, kito. Ez dago arrazoirik hizkuntza bat baino gehiago administrazioan ametitze-ko! Gobernuak Espainiaren kohesio linguistikoa ziurtatu behar du! PPK ezin eraman du euskararen berpizkundera. Gutxiago, hark —«harroturik!»— exijentziak altxatzea gizar-tean. Garapen hori dena «politikoa» da. Balazta ipini beharra dago bulta horri. Beraiek seguru asko ez dute nahi euskara «akabatu» (euskara maite dute, hala diote behintzat, eta hein batean sinets geniezaieke), bakarrik haren hazkunde «larregizkoa» neurri sano batera ekarri. (Akabatzeko beste modu bat alegia —akabatu gabe). Formak galtzeke ibiliz, hala ahal denean, administratziotik (Nafarroan): oztopoak ipiniz, kanpainak orkestratur prentsan, «intelektual kritikoak» bultzatur, sasiarazo administratiboak asmatuz; euskaltzaleak behatur irabazitako batailak atzera irabaztera behin eta berriro, bitartean ez baitute ahal izango beste proiektu batzuetan jardun. Eta birgaraipentxoak pozik ospatzea uzten zaien bitartean, haserrea ez da lehertuko, aurreratu ere ez dute ezer eginen, dena polito Gobernuaren kontrolpean gelditzen da. Administratziotik ezin bada, aldiz, alegia ezin bada subentzioak ukatu, etab., Euskal Erkidegoan bezala, orduan Madrildik borrarrekin interbenitzen da politikoki eta judizialki. Alafede, medioak ere drastikoagoak dira: garapen kultural osoa globalki kriminalizatu egiten da, euskarazko kultur gizar-tetxoa (gehienbat berria dena) terrorizatu (beti euskara maitatur eta «euskararen onerako»). Lizarra-Garazi aurretik nonbait bigun-bigunean eskuratur joa-teko asmoa zuten helmugak, zuzenki eta gogorrean atakatzen dira orain.

Sisifo euskaldunak berriro zerotik abiatu behar harria mendian gora jasotzen, haserre eta pozik. Bere barruko kontraesanen artean.

Pobre eta ahula beti Sisifo —eta ongi horrela, gutxienez amorratzeko gai den artean.



5. Perspektiba: enpresako kazetaria

Egun batean, etorri lanera eta ikusiz *Egunkaria* itxia, Martin Ugalde Kultur Parkea interbenitua, lagunak preso, familiak negarrez, geure inpotentzia ezin dugu ulertu, gizarte oso-osoak aho batez nola ez duen protestatzen hainbeste arbitrarietate eta basakeriaren aurrean. Abertzaleek bakarrik? Ez dute sozialistek ezer esango?

Zeinek lagunduko digu guri, lagundu?

Ezinen ezinean, euskaltzalea sentimendu kontrarioek gainezkatzen dute, eta desesperazioan bere burua autokulpatzen hasten da: hemendik aurrera total ezpolitikoak izan behar dugu, inolako aitzakiarik ez emateko! «Gutarrena» soilik baino babes politiko zabalagoa behar dugu bilatu! Has gaitezen, injustiziaren aurrean lagunduko diguten lagunak bilatzen!

Zer egin, gauzok inoiz ez daitezene berriro jazo ahal izan?

Egiaz, historia beltz bat da hau dena, baina «positibatu egin behar da!». Erasoak ez dira gauzak txarto egiteagatik etorri, ondo egiteagatixe baizik. Ondo egin dira lanak, hobeto egiten jarraitu behar da.

Hori garantiarik ez da —ez dago!—, eraso gehiagorik egongo ez dena, baina bai lagun eta ezlagunentzat gure egunkaritxoaren sekulako inportantziarena. Horregatik daukagu, zeinek eraso digun; eta daukagu, zeinek jaso gaituen —gure herria. Denen agerian dago egunkariaren balio estrategikoa euskal herritasunaren birregintzan. Erasoak berak agerianago ipini du.

Enpresa sendo, eder bat eginen dugu, bai.

Egunkari libre bat eginen dugu.

Sarasolak goraipatu zuelarik *Egunkaria*-ren ekarpena hizkuntzaren normalizazioan, biziki alaitu gintuen.

Izan ere, normalizazio linguistikoa, esaten dugu. Haatik gehiago da. Normalizazio linguistikoa funtsean normalizazio soziala da, kulturala da, pertsonala. Egunkariak euskararen normalizazioa esanahi du, eta Euskal Herriaren normalizazioa esanahi du halaber: euskararen herriarena.

Bere orrietan eguna argitzen duen mirari bat bezala da euskarazko egunkaria. Garen herri txikiak han bere burua goizero ikusi ahal duen ispilua.

Lanbideko eguna zamatzen duen joan-etorri guztian, han bakarrik zaio euskaldunari mundua, mila errealitateko hori, mila koloreko hori, osoki geuretzat mintzo, gure doinuan. Eta, egunkariaren bidez, munduz betetzen digu etxea.

Eginkizun hori da gurea, kazetariona: Euskal Herriari egunoro bere eta munduaren ispilua ematea. Munduaren eta Euskal Herriaren GURE ispilua.

Gurea da. Mundua gure begiekin ikusten digu. Gure politika eta politikarien, gure liburu eta autoreen, kantarien berri ematen digu. (Zer besterik egiten du egunkari ingeles edo aleman batek?). Gure azoka eta produktuena, gure gauzena, gure jende, herri eta kirolena.

Egunkariak horrela —zuri eta niri— herri bat ematen digu, bestela edonon ukatua daukagun herri hori. Banaizela, esaten dit egunoro. Esaten dizu.


Normalizazio territoriala ere bada, horrela. Eskuan, Azpeitiaren ondoan Maule ikusten dut. Leitzatik Muskizera pasatzen da begia orri zabalean.

Azkenik, normalizazio politikoa ere bada nolabait. Elkarlotura sortzen du, lurralde sakabanatuan bezala, mentalitateetan. Bildu egiten ditu interes barreiatuak, ikuspideak, eta elkarren alboan jartzen ditu. Artikulatu egiten du pentsamendua. Iritziak tokitxo jakin bat hartzen dizu, badakizu non dagoen. Gogoetak arta kolpe bat jotzen dit. Interbistan diferentzia formulatu egiten da.

Formulatzen dena, beha liteke astiro, gaindi liteke.

Eguna egunarekin elkarriketan, posizioak gara daitezke modu ezberdinetan, denok ikasten dugu, arrazoiak bila ditzake bide berriak.

Erasoak badu arrisku bat: egunkariak kritikoa izan behar du. Baina erasoaren pean egunkariak larruan bizi izan du, edozein momentutan era guztietako laguntzen premia duela, eta okil daiteke bere bokazio kritikoan.



Zentsurak bezala, erasoak ez du kritika errazten. Zentsura forma bat da.

Beldurrak sor litzake behar ez bezalako menpekotasunak, begirune ez onurazkoak, lotsak.

Egunkariarentzat baitezpadakoa da ez uztea inoiz instituzioen kritika, Jaurlaritzaren kritika. Funtzio esentzial bati uko egitea litzateke. Dena den, arriskua dagoen tokian, aukera ere han dago. Ausardia behar, eta aukera aprobetxatzen jakin.

Kritika arte zail bat da. Mailuarekin baino agian hobeto egiten dena pintzelarekin, kontuz egiten ikasiz gero. Aukera daukagu ikasteko. Ikasiko dugu.

Ikaragarria da deskalabru honetan jaso dugun solidaritatea. Gure obligazioen lista gora jasotzen du. Neurri batean, euskalgintzaren historia egunkariaren historia ari zaigu bihurtzen egunotan. Ez dakigu, zenbat zor diogun *Egunkaria*-ri. Negarrak, pozak, laguntasunak (Katalunia!), hainbat gazteren sakrifizioak, hainbat gazteren profesionaltasuna.

Beharbada egunkariarekin egin dugun esperientziarik inportanteena, hala ere, sentitzea da, behin eta berriro, euskarak benetan aberastu egiten gaituela, ez pobretu.

(Esker onez laguntzagatik Joxemari Sors eta Joan Mari Torrealdairi).